

Bilboko Bidebarrieta liburutegia itxita egongo da jendearentzat ostiralean eta larunbatean

BILBO, 15 (EUROPA PRESS) Duela zenbait astetik Bilboko Bidebarrieta liburutegian burutzen ari diren klimatizazio-sistema instalatzeko lanen ondorioz, eta erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, liburutegia itxita egongo da jendearentzat ostiralean eta larunbatean.

Utzitako liburuak edo beste euskarri batzuk egun horietan itzuli behar dituzten pertsonak abenduaren 20ra atzeratu ahal izango dute itzulketa hori eta atzerapen horrek ez du inolako penalizaziorik eragingo.

Bilboko Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, klimatizazio-sistema instalatzeko lanak burutzen ari den Bidebarrieta liburutegiak abenduaren 20an irekiko ditu berrito ateak, bere ohiko ordutegiarekin.